



## **HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA**

**Espedientea: DNCG\_LEY\_1195/19\_03**

**Landa Ingurunearen Garapenaren Lege Aurreproiektuaren** berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan ekainaren 18an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturak Saileko Lege Aholkularitzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

### **a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.**

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

*“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behineko onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”*

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena ekainaren 13koa da eta, ekainaren 17koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

*“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”*

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Xedapenaren edukiari dagokionez, testuaren zenbait lekutan EAEkoak ez diren hizkuntzatan idatzitako esamoldeak aurkitu ditzakegu; besteak beste:

- Zioen adierazpenean: «*smart*», *Smart Villages*, *bottom up*, “*Rural Proofing*”;
- 4. artikuluan: “*smart territory*”;
- 5. artikuluan: *start up-ak*, *Smart Food Country*, “*Smart territory*”, “*Smart cities*”, “*Smart villages*”;
- 10. artikuluan: *bottom-up*;
- 14. artikuluan: *aukera-inputa*;
- 15. artikuluan: *ex post*;

Legea irakurriko duten herritarrek ez daukate zertan atzerriko esamolde horiek ezagutu eta, aldiz, informazio horiek bertako hizkuntzan jasotzeko eskubidea daukate.

Bestalde, euskarazko zatian txertaturiko irudiaren azalpenak gaztelaniaz agertzen dira.

Hizkuntza aipamenei dagokienez, Lege Aurreproiektuaren Zioen adierazpenean eta 2., 4., 5. eta 6. artikuluetan aurkitu ditzakegu; honela diote:

## **ZIOEN ADIERAZPENA**

*2. artikuluan landa-garapeneko politikek eta jarduketek bete beharko dituzten printzipioak ezartzen dira. Printzipio horiek esparru honetan politikak eta jarduketak gidatu behar dituzten balioak dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, landa-eremuko emakumeen ahalduntzearen sustapena, **euskal landa-ingurunearen kultura-identitatearen zainketa**, eta **landa-eremu guztietan euskararen erabilerari eman beharreko bultzada**.*

### **2. artikulua. Landa-garapenaren printzipio gidariak**

*Landa-garapenak helburu izan beharko du gure landa-ingurunearen jasagarritasuna eta funtzio-aniztasuna lortzea; horretarako, landa-garapenaren ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-arloetako dimentsioetan hainbat printzipio txertatuko behar ditu, besteak beste emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, landa-eremuko emakumeen ahalduntzea, **euskal landa-ingurunearen kultura-identitatearen zainketa**, eta **landa-eremu guztietan euskararen erabilerari eman beharreko bultzada**.*

### **4. artikulua.- Landa-garapeneko politiken helburu orokorrak**

*Landa-garapeneko politikek honako helburu orokor hauek izango dituzte:*

*Euskal landa-eremuko biztanleriaren ongizatea hobetzeko,*

*IX. Gure landa-ingurunearen **kultura-ondarea zaintzea**, bai ondare materiala (elizak, jauregiak, dorretxeak eta abar), bai **immateriala (hizkuntza, tradizioak, artisautza)**,... etorkizuneko belaunaldientzat kontserbatu beharrekoa baita.*

### **5. artikulua.- Landa-inguruneeko politika instituzionalen helburu sektorialak**

*Honako hauek dira helburu sektorialak:*

*7. Hezkuntzaren, kirolaren eta kulturaren arloan:*

*f) Landa-eremuetako natura-, historia-, **kultura-**, paisaia- eta **hizkuntza-ondarea lehengoratu, kontserbatu, garatu eta zabaltzea**.*

## **6. artikulua. Definizioak**

*Lege honen xederako, honela ulertzen dira honako hauek:*

- ***Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen funtzio-aniztasuna:*** *Nekazaritza- eta basogintza-sektoreak gizartean egiten dituen ekarpenen multzoa. Merkatuetara bideratutako elikagai eta lehengaiez gain beste ondasun eta zerbitzu publiko edo kanpo-efektu batzuk dira, merkatuek ordaintzen ez dituztenak.*

*Nekazaritza- eta basogintza-sektoreak sortutako ondasun publiko edo kanpo-efektu positiboen artean honako hauek nabarmendu ahal dira:*

- ***Gure lurraldearen eta bere landa-eremuaren arteko identifikazio soziala:*** *gastronomia, tradizioak, paisaia, kulturaren sostengua (besteak beste euskara kontserbatzea).*

Lege Aurreproiektu honek indargabetu nahi duen *Landa Ingurunearen Garapenerako, apirilaren 8ko, 10/1998 Legeak* ezarritako bidetik jarraitzen du; honela dio indarrean dagoen testuak:

### **2. atala.– Euskal Autonomia Erkidegoko landa ingurunea garatzeko politikaren helburu orokorrak.**

*Landa ingurunearen garapenerako politikak ondoko helburu orokor hauek izango ditu:*

- g) *Landa inguruetako natur, histori, kultur eta hizkuntz ondarea berreskuratu, artatu, garatu eta zabaltzea.*

### **5. atala.– Landa ingurunearen garapenerako programen lurralde eta eginkizun eremua.**

2.– *Landa ingurunearen garapenerako programetan jarduera hauek jorratuko dira, besteak beste:*

- d) *Landa zonaldeetako zerbitzuak Autonomia Erkidegoko gainerako zonaldeetakoekin parekatzea, hezkuntzan, osasunean, etxebizitzan, gizarte zerbitzuetan, kultur azpiegituretan eta zerbitzuetan eta hizkuntz normalizazioan batez ere, landa ingurunearen ezaugarrietarako egokiak diren irizpide eta baremoekin.*

Bat egiten du, halaber, *Lurralde Antolamendurako Gidalerroen* berrikuspenerako dokumentuetan jasotakoarekin eta *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko, apirilaren 7ko, 2/2016 Legearen* 7. artikulua ezarritakoarekin; honela dio 7.7 artikulua:

***“7.– Udalen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.”***

Zalantzarik gabe, Lege honetan aipatzen diren hainbat elementu eragina eduki dezakete eragindako eremuaren egoera soziolinguistikoan; adibidez: *landa-turismoa, natura-turismoa, azpiegiturak, etxebizitzarako irispidea, landa-ingurune merkataritza, mugikortasuna, biztanleria mantentzea eta handitzea, populazio-dentsitatea handitzea...*

Beraz, *Landa Garapeneko Programak, Lurralde Garapeneko Programak, Landa Garapeneko Eskualdeko Programak, Toki Garapeneko Planak* zein *Partaidetzazko Toki Garapenaren Estrategiak* diseinatzerakoan euskararen gaia ebaluatu eta kontuan hartu behar da eta adierazlearen artean txertatu.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Aurretik esandakoak aztertuta, argi ikusten da bai indarrean dagoen testua zein aurreproiektu berria egiterakoan euskararen normalizazioarekiko arduraz jokatu dela.

Bide beretik, euskararen normalizazioaren ikuspegitik onuragarri bezala baloratzen dugu HAZI fundazioaren barruan sortzen den kudeaketa-arlo edo -zerbitzu berriarentzako LURRALDE izena jartzea aurreikusi izana (14. artikulua).

Lege Aurreproiektuaren 5. artikuluan honela dio:

**5. artikulua.- Landa-inguruneko politika instituzionalen helburu sektorialak**

*Honako hauek dira helburu sektorialak:*

*10. Berrikuntzaren arloan:*

*b) Gaikuntzarako, prestakuntzarako eta trebetasunen garapenerako tresnak eskura jartzea, landa-inguruneko eragileek berrikuntza baliatu ahal izan dezaten eta berrikuntza-prozesuetan gaitasun proaktiboa eduki dezaten.*

*c) Ezagutzaren sozializazioa sustatzea, eta xede horrekin ziurtatzea esparru akademikoetatik ezagutza transferitzen dela; halaber, ikertzea eta nekazaritzako elikagaien sektoreari aholku ematea. Horrez gain, ezagutzaren trukea bideratzea azken erabiltzaileen eta elikaduraren balio-kateko mailen artean.*

*Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako, abenduaren 23ko, 17/2008 Legeak honela dio bere II. Kapituluaren (Nekazaritza eta Elikagaigintza Arloko Prestakuntza) kokatutako 70. artikuluan:*

**70. artikulua.- Oinarri orokorrak.**

*g) Prestakuntza euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea ikasleei.*

Gomendagarria litzateke Legearen 5. artikuluan ere adieraztea prestakuntza euskaraz jasotzeko eskubidea bermatuko dela.

Bestalde, aipatutako 5. artikuluko horretan jasotako helburuen artean hau ere aurkitzen dugu:

2. *Nekazaritzaren, basogintzaren eta elikaduraren arloan:*

a) *Euskal nekazaritza- eta basogintza-sektorearen lehiakortasuna handitzea, eta horretarako, **produktuen berezitasunerako pizgarriak ematea** kalitatean, ingurumen-jasangarritasunean eta elikadura-segurtasunean oinarrituta, sektorea egituratzen laguntzea eta merkataritza-sustapena egitea sektorearen produktibitatea nahiz ekoizpen-kostuak hobetzeko, arreta berezia eskainita garapen endogenoko jarduketari eta merkaturik hurbilenetan egin beharreko sustapenari.*

Horrekin lotuta hona ekarri behar dugu aurretik aipatu dugun *Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako, abenduaren 23ko, 17/2008 Legeak* dioena bere 50.5 artikuluan:

**50. artikulua.**– *Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen identifikazioa.*

5.– *Euskararen erabilera sustatuko da Euskal Autonomia Erkidegoan merkaturatutako nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen identifikazioan. Jatorri- eta kalitate-ikurra duten produktuei dagokienez, lege honen 58.5 artikuluan xedatutakoa beteko da.*

Halaber, honela dio *Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren, abenduaren 22ko, 6/2003 Legearen* 41. artikulua:

**41. artikulua.**– *Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa emateko hizkuntza.*

1.– *Euskadiko Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan banatutako ondasun eta zerbitzuei dagokienez kontsumitzaile eta erabiltzaileei ematen zaien informazioa, barruan sartuta etiketetan, ontzietan eta erabilera-jarraibideen inprimakietan jasotzen den informazioa ere, euskaraz, gaztelaniaz edo, aldi berean, euskaraz eta gaztelaniaz adieraziko da, eskaintzailearen nahiaren arabera, salbu eta kapitulu honetan berariazko erregimen bat aurreikusten den kasuetan. Hori guztia kalterik egin gabe aplikagarria den legeriak, osasuna eta segurtasuna babesteko arrazoiengatik, kasu berezietarako ezar dezakeenari.*

2.– *Gobernuak sustapen-neurriak hartuko ditu euskara eta gaztelania batera erabil daitezkeen, 1. paragrafoan aipatutako ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioan. Jatorri-deitura edo kalitatezko izendapena duten euskal ondasunen kasuan, bai eta artisautza-produktuen kasuan ere, euskararen erabilera sustatuko da etiketatzeko orduan, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan erregulatutako produktuak badira.*

Lege Aurreproiektuaren 10.6 artikuluan honela dio:

**10. artikulua. Landa Garapeneko Eskualdeko Programak**

*6. Programak prestatzeko metodologia eta prozedurak diseinatzerakoan kontuan hartuko da bottom-up ikuspegia bideratu beharko dutela; ikuspegi horren oinarria da dena delako eskualdean dauden ekonomia- eta gizarte-arloko sektoreak ordezkatzen dituzten eragile publiko eta pribatu nagusien parte-hartzea eta ekarpena. Metodologia hori Eusko Jaurlaritzan Landaren eta Itsasertzaren Garapenaren ardura duen Zuzendaritzako titularraren ebazpen bidez onartuko da, Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak erabakia hartu ondoren.*

Kontuan harturik parte-hartze prozesuetan euskaraz aritu nahi diren herritarrek sarritan oztopoak aurkitzen dituztela, komenigarria litzateke aipatutako metodologiaren baitan ezartzea neurriak hartu beharko direla herritarren euskaraz parte-hartzeko eskubidea bermatzeko.

Lege Aurreproiektuaren Azken Xedapenetako Lehenengoak aldatzen ditu *Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako, abenduaren 23ko, 17/2008 Legearen* 93. eta 94. artikulua; honelakoa litzateke 94. artikulua idazketa berria:

**94. artikulua.- Eginkizunak eta barne-araubidea**

*Arauz zehaztuko dira Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluaren eta Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordearen **osaera, eginkizunak eta barne-araubidea.***

Gaur egun indarrean dagoenarekin alderatuz ikus dezakegu aldaketa bakarra Kontseiluaren eta Batzordearen osaerari buruzko aipamena dela.

Kontseilu/Batzordekideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein gainontzeko kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorren bermatzeko eta administrazioak jarraitu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea:

***Kontseiluko/Batzordeko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea eta gizonen eta emakumeen arteko oreka bilatuko da. Kontseiluko/Batzordeko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu***



***Kontseiluak/Batzordeak horrela erabakitzen badu bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.***

Proposatzen dugun testuan hizkuntzaren ikuspegia eta genero berdintasunarena elkartuta daude. Biak zeharkako gaiak izanik formula bera erabili izan ohi dugu beste hainbat kasutan.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria